

Nafarkaria


• ostirala • 2002ko martxoaren 8a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Nafarroa • Ferminua Nafarroako salbatzailearen abenturak bildu ditu Carles Recio komiki batean • 3
Alex Perez • «Pailazo izatea barneko umea bizitzeko aukera da» • 7

• CRISTINA BERIAIN



Kulturak batzen ditu erronkariarrak



• JOXE LACALLE

Duela hamabi bat urte, Erronkari herrian Julian Gaiarrereren etxe-museoa zabaldu zutenetik, kultur suspertzea izan dute Erronkaribarrean. Pirinioetako ibarrek duten gaitz demografikoak jota dago Erronkari ere, baina azken urteetan anitz izan dira erronkariarrek abiatu dituzten kultur egitasmoak: omenaldiak, museo berriak, monumentuak, bestak, argitalpenak, erakusketak... Horiek guziek, herrien arteko ohiko lehien gainera, erronkariarrak batzea lortu dute.



• MIKEL SAIZ

• MIKEL SAIZ

Nafarroako Toki Garrantzitsu izendatu dute Artikutza



Goizuetako lurretan dagoen eta Donostiako Udalaren jabetza den Artikutza lursaila Nafarroako Toki Garrantzitsuen zerrendan sartzeko erabakia hartu zuen joan zen astelehenean Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak. Neurria behin behinekoa da, jendearen aitzinean egonen baita bi hilabeteko epean. Helegiterik ez badago, behin betirako onartu, eta Espainiako Ingurumen Ministerioak berretsi beharko du, Natura 2000 sarean sartu ahal izateko.

Orain artean Nafarroako 41 tokik dute izendapen hori, bere natur balioa berresten duena. Horien artean, daude, bertzeak bertze, Bidasoa ibaia, Orabideako erreka, Aritzakun-Urritzate, Bertizko Jaurerria, Belate mendatea eta Kintoak.

Artikutza 3.645 hektareako eremua da, hosto galkorreko zuhaitzez osatua ia erabat, haritzak eta pagoak gailen direla. Zuhaitz mota horiek 2.893 hektarea hartzen dute, 381 hektarea pinudi dago, eta 355 arbolik gabeko oihana. Egun, jabetza Donostiako

Udalarena da, XX. mende hasieran Gipuzkoako hiriburua urez hornitzeko erosi baitzuen. Ura, hala ere, Añarbeko urtegitik hartzen da, eta Artikutzako ura salbuespen egoeratan baino ez da erabiltzen. Babestutako eremua da, eta bisitari kopuru mugatua du. Horrek ekarri du hainbete animalia eta landare egotea, eta paraje aberatsa izatea. Horrek guztiak, eta historiaurreko trikuharri zein harrespilek, eta Erdi Aroko olak, Toki Garrantzitsu izendapena merezi izan diote.

Nafarroa

Antso Handiaren omenezko kantata lehiaketa

Antso III.a Handiaren agintaldi hasierako milurtea dela eta (1004-2004), Eusko kultur Fundazioak eta Foro Irun XXI elkarteak, Bertsozale Elkartearen aholkularitzarekin, Nafarroako erregearen omenezko kantata lehiaketa antolatu du, musika arloan prestatuko diren ekitaldietarako pieza bat aukeratzeko.

Bi ezaugarri bildu nahi dituzte milurteko horren oroitzapenean: «Euskaldun guzcion estatu izan zen Nafarroako Erreinuaren balio sinbolikoa» eta «duintasun zientifikoa, datu historikoen ekarpenak kontzientzia kolektiboren aberastasuna sortzen baitu».

Lehiaketako oinarrietan erran dutenez, kantatako bertsoetan ez dago zertan historiaren berri zehatza eman; baina, «interpretazioak interpretazio, ezin da hankasartze historiko nabarmenik zabaldu». Beraz, oinarri historiko batez antolatu behar dira bertsoak, 1004-1035 urteen arteko gertakariak kontuan hartuz, betiere egungo ikuspegitik.

Lehiaketan edonork har dezake parte. Ahapaldi kopurua 11 eta 16 artekoa izanen da, neurri librean. Bertso guzietan ez dute neurri berean izan beharrik, baina, batasuna izan beharko dute. Bertsoak Din-A4 formatuko orrietan aurkeztuko dira, eta bost kopiatan bidali beharko dira, apirilaren 30a baino lehen, Bertsozale Elkartearen helbidera (Igeldo Pasealekua, 25; 20008 Donostia). Lehiaketako irabazleak 1.500 euroko saria eskuratuko du.

Informazio gehiago 948-141812 telefonoan, edo idatzi euskokultur@terra.es helbide elektronikora.

→ Daniel Urrutia

→ Asier Azpilikueta

Xabier • Larunbat eta igandean eginen dute 62. Xabierraldia

ASTEBURUAN EGINEN DEN 62. XABIERRALDIAN parte hartuko duten erromesak atenditzeko Gurutze Gorriko lauhun bat kide izanen dira, Erriberan, Erdialdean eta Iruñerrian paraturiko 22 sorospen postuetan.

Xabierraldia, Nafarroako erlijio ekitaldi herrikoiarik jendetsuena -60.000 lagun batez beste-, *En familia, caminamos hacia Javier* lelopean eginen dute aurten. Ohi denez, lehenengo xabierraldia bihar eginen dute erromesek, Xabierren igandean eginen den

goizeko meza entzuteko. Heldu den asteburuan berriz, meza igande arratsaldean izanen da.

Erromesen beharrei erantzuteko, Gurutze Gorriak ezarri duen taldearen baitan dira medikuak, erizainak, masajistak, sorosleak, anbulantzietako laguntzaileak eta komunikazio arduradunak. Denetara, lauhun bat lagun. Oinetako zauriak zendatu eta masajeak emateko beharrezko guzia prest izanen du Gurutze Gorriak, baita beste

edozein larrialdirako beharrezkoa ere. Lehen postua gaur goizeko bederatziatan zabalduko dute Virgen del Yugon, Erriberan. Azken postua igande arratseko hiruetan itxiko dute. Ibiltarien segurtasuna bermatzeko, foruzainak eta guardia zibilak izanen dira ibilbidean.

Gurutze Gorriak hainbat aholku eman die erromesei: bakoitzak bere erritmora ibiltzea; oinetako eta arropa egokia eramatea; bakarrik ez joatea; errepidearen ezkerretik ibiltzea; errepidea ez gurutzatea; gaez ibiliz gero, arropa isladatzaileak eta eskuargiak eramatea; eta ibilaldian ongi jan eta edatea.

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Sorginek hegan egiten dute eta akelarrean biltzen dira eta akerrarekin harreman zuzenak dituzte eta sorgin gazte lirainek zapielak erditzen dituzte. Eta horixe guztia, garrasi ikaragarrien artean aitortzen dutenean, erre egiten dituzte herriko plazan eta agintari erlijioso eta politikoko txalo beroak egiten dituzte eskuak zikindu gabe. Horretarako daude berreroak... Eta «fededun onek» sinestezina dena ere irensten dute. Sorginkeriak, gaitz eta oinaze guztiak uxatu dituztela uste dute, inkisidoreen tramankulu mingarrien atzaparretan harrapatutakoak akatu dituztelako.

Inkisizioaren menpe gaude berriz ere. Beharbada ez gara beretaz sekula libratu. Inkisizioak torturak erabiltzen ditu atxilotutakoak mintzarazteko. Garai guztietako erlijioak, botereko sinismenak auzian jartzen dituztenak txikitu nahi izan ditu beti Inkisizioak. Disidentzia, ezberdintasuna, herri xehearen harrotasun zilegia, gure

Inkisizioa

herriaren nortasuna zapaldu, ezabatu, lehertzea da inkisidoreen nahi eta helburu. Betiko metodoak erabiltzen dituzte eta gaur egun askoz ere sofistikatuagoak diren berri batzuk ere bai. Inkisizioak tresna eta tresneria ikaragarriak erabiliz beldurra eta egonezina zabaltzen dituzte gustuko ez dituenen artean. Gustuko dituenen berriz bere gezurrak sinistarazten dizkie. Zapuztutakoek giza eskubiderik ez dute. Horixe zabaltzen du Inkisizioak gizarte osoaren aurrean. Atxilotutakoak errudun dira eta kitto!!! Torturaren menpe esandakoak egia hutsak dira eta kitto!!!

Gure herrian, tamalez, beldur gehiegi dago Balde guztietatik. Bizitza, askatasuna, lasaitasuna galtzeko beldurra. Min, oinaze dolu sobera dago Balde guztietan

ere. Komunikabide gehienek, ordea, soilik beldur mota baten oihartzuna ematen dute eta beldur mota gehiago daude. Gatazkaren errudun bakarrak daudela diote eta ez da egia. Edozein ideologia izanik, hiritar guztiek askatasunean bizitzeko eskubidea dute. Eta ozenki aldarrikatzen dut eskubide hori. Abertzaleek errugabe izateko eskubidea dute!!! Sozialistek errudun ez izateko eskubidea dute!!! Giza eskubideen jabetza izan beharko lukete kalean ibiltzeko bizkartzainaren babesa behar dutenek eta kotxea hartu baino lehen, miaketa sakona egin behar izaten dutenek. Giza eskubideen jabe izan beharko lirake abilotuak, beren familiakideak, beren lagun eta lankideak. Susmagarri ez izateko eskubidea izan beharko genuke, eta odol putzu batean ez itozteko, eta aukera zentzudun eta bideragarriak entzuteko, eta norberak bere etxean lasai lo egiteko, eta haize pozoitsu honetatik atera ahal izateko...

Nafarroa ●

Ferminua super-heroiaren abenturak

Carles Recio valentziarrak Nafarroan kokaturiko komiki futurista bat egin du

2115 urtea. Euskadiko Gobernuak independentzia aurretik eginiko proba nuklearrek zoritxarreko ondorioak eragin dituzte Nafarroan: zezenek gizakien lekua hartu dute, eta pertsonak esklabismo basatian bizi dira. Ferminuak hori konpondu beharko du.



Ferminua komikian, sexuak eta bortizkeriarik garratzenak umore beltzarekin bat egiten dute. ● EGUNKARIA

HARRIGARRIA IRUDI LEZAKE Carles Recio (Valentzia, 1965) Valentziako Ikasketen Institutuko lehendakari eta Valentziako Diputazioko argitalpen arduradunak Nafarroako lehen super-heroiaren inguruko komikia argitaratzeak. Baina Recio familia du Zarrakaztelun, eta ttikitatik etorri da sanferminetara. «Izugarri gustatzen zaizkit sanferminak, arauak apurtzeko duten gaitasunagatik», erran zuen Recio iragan asteko ostegunean Iruñeko Valentziako etxean, komikiaren aurkezpenan. «Sanferminei, baina, matxismo amorratua darie», segitu zuen Recio. «Horri buelta eman nahi izan diot. XXII. mendea emakumeen mendea da eta, horregatik, gure heroia emakumea da».

Komikiaren ideia, gidoia, testuak eta marrazkien zirriborroak Carles Recioenak dira, baina ilustrazioak Valentziako Ikasketen Modernisten Institutuko irudigile talde batek egin ditu. Hala ere, komikian argi eta garbi ikusten dira Iruñeko zezen-plaza,

udaletxea eta Sarasate pasealekua eta Zarrakazteluko La Oliva monasterioa.

Ferminuak sanferminetako jantzi tipikoa darama: txapela eta zapi eta gerriko gorria, titiburuak eta hankatarrea ozta-ozta estaltzen duen bainu jantzi zuria eta izterreraino ailegatzen diren larru zuriko bota altuak. Bere arma: Nafarroako armarriko kateak. «Ferminua patxarana bera baino nafaragoa da», Recioen hitzetan. «XXII. mendeko emakume idilikoa da».

Nafarroako komikia

Ferminuak Nafarroa zezenen atzaparretatik salbatu beharko du, Españisima (arras espainiarra) super-heroiaren laguntzarekin. Komikian ez da ageri Nafarroak beste euskal lurraldeekin izan dezakeen harremanik, ez bada errateko zezenen mutazioaren sorburua Euskadi-

ko Gobernuaren proba nuklearrak direla. Harreman horri buruzko galdera egin zioten Reciori aurkezpenean eta hark erran zuen bera ez zela nor azalpen politikoa emateko. «Nafarroako komikia da, Nafarroako a besterik ez», gaineratu zuen. «Hurrengo batean Euskadiri buruzko komikia egingen dut, eta gehiago dibertituko gara».

Bortizkeriarik garratzenak eta sexuak ere lekua dute Recioen komikian. Ageriko

sexu harremanekin batera, Ferminua eta Españisima superheroi hagitz sentsualek halako harreman homosexuala dutela iradokitzen du Recio bere komikian.

Bortizkeriari dagokionez, anbigua da Recioen komikia. Ferminua arrunt basatia da etsaiak zatikatzeko tenorean, baina zezenketen aurka dago. Horrela, zezenen tirania bukatzen duenean, «gizakiketak» debekatzen ditu, baina baita zezenketak ere. Aldiz, Recio Rivera Ordoñez toreatzaile espainiarrari eskaini dio komikia. Baina, era berean, komikien salmentak etekinik balu, Valentziako animalia eta landareen babeserako elkarre batendako izanen litzateke. Harrigarria, benetan.

→ Asier Azpilikueta



Izenburua: 'Ferminua'.
Egilea: Carles Recio.
Argitaletxea: Instituto de Estudios Modernistas (Valentzia, Espainia)
Orrialdeak: 52.

Ale kopurua: 2.000.
Salneurria: 10 euro.

Sinopsia: Proba nuklear batzuen ondorioz, zezenek gizakien lekua hartu dute Nafarroan. Ferminua heroia, Españisimaren laguntzaz, gizakiak askatu beharko ditu.

Udaberria

Udaberria Larraburu-Enean. Sala nagusiko sutondo ondoko beroa utziz, Bexikulasen bila (nire maiordomoa, nire txoferra, nire lorezaina) abiatu naiz ekialdeko lorategira. Alde guztietatik euri txikia eta hotza. Eta ni aterkirik gabe eta go-go pixka bat tristaturik. Hartxintzarrean sortzen ditudan hotsak hezeak eta melankoliatsuak. Zalditgien aldetik laino puntu bat (edo bi. Zer ostias: kristoren lainoa dago! Puntu bat baino, txorrotada!). Han eta hemen euriak lurretik atera dituen zizareak arrastaka (zertarako ateratzen dira?). Mika bi makal baten puntan habia egiten (teilatua jartzen diote mitek habiari; ez hauek berexiki, guztiek. Esferikoa egiten dute, eroso eta abegikorra izan behar du).

Ekialdeko lorategian Bexikulasen arrastorik ez. Sartaldekorra abiatu naiz orduan (jada euritakorik gabeko irteeraz pixka bat damaturik). Bexikulas bertan aurkitu dut. Eskailera motz baten gainean, Labirintoaren ezkaian tamaina kimatzen ari da. Berak zer edo zer esan nahi dit labirintoko brontzeko eskulturei buruz, baina ni hoztuta nago dagoeneko, eta egin behar nion kontsulta egin eta sutondora bueltatu nahi dut.

Beraz, udaberria heldu dela berak zertan antzematen duen galdetu diot. Egutegiari begiratzen diola esan dit, eta data zehatza duela udaberriak. Nik «ea lorezain batek ez ote duen udaberriaren beste zantzurik atzematen aha!», galdetu diot, «ez al dituen armiarmen lehenbiziko hegaldia ikusten, lehenbiziko sorbeltzak, lehenbiziko xinaurriak, zizareak lur gainera etorri direla, Camille esnatu dela, hori guztia, ez dakit nik: kimatzea bera, mikak habia egiten hasi direla!, nik zer dakit!, (berotu naiz), Nafarkaria-ko zutaberako behar dudala, ostia», esan diot euri azpian kuxkurtua eta etxera bueltan egin behar ditudan bost minutu krudel horietan pentsatzen.

Bexikulas eskaileretatik jaitsi da eta artaziak zorrotzen hasi da. «Ez dakit jefo», berak; «hori guztia egia da, baina udaberria hogeita zortzian edo hor nonbait hasten da, zer esango dizut... ekinozioa... data zehatza da... pffff». Ezin dut gehiago eta etxera bueltatu naiz. Hobe zuzenean Interneten begiratzea. Udaberria jarri eta ea zer ateratzen den ikusiko dut ●

Kultura suspertzea Erronkarin



Kulturaren gaineko egitasmoak ugaldtu egin dira azken urteotan, eta erronkariarrak batu egin ditu

Beste hainbat gauzarekin egin bezala, argazki zaharrak berreskuratzeko egitasmoa ere abiatu dute Erronkarin. Irudian, Izabako herritar batzuen gazta egiten, 1924an.

● FERNANDO HUALDEREN ARTXIBOA

Erronkari, Pirinioetako ibar guziak bezalaxe, ez dago ongi demografia kontuetan: 1.800 biztanle besterik ez ditu; zati handi bat adinduek osatzen dute; eta gazteek hirira alde egiten dute. Bizimolde tradizionalak bukatu zirenetik, gainbehera doa. Azken hamar urteetan, baina, ataka horretatik ateratzeko edo, kulturari eutsi diote, eta Erronkariko bizilagunak zerbaiten inguruan batzea lortu dute.

AZKEN URTEOTAN, ERRONKARIBARREKO zazpi herrietan, asko izan dira gauzaritiko kultur egitasmoak, guziak errepertario honetan atzeratzea ezinezkoa egiteraino. Horien guzian gibelean, modu batean edo bestean, Fernando Hualde ikerlaria egon da, eta berak kontatu du nola izan den suspertze hori.

«Julian Gaiarren heriotzaren mendeurrenaren karietara, 1990ean etxe-museoa zabaldu zen, Erronkari herrian», azaldu du. «Hura izan zen kultur suspertzearen abiapuntua. Museo bat izateak museo gehiago izatera animatu gintuen, eta 1998an, Izabako Museo Etnografikoa zabaldu genuen. Baina ikusi genuenez etnologiar buruzko kontuak museo bakar batean sartzen ez zirela, museo gehiago egin behar zirela erabaki genuen. Gure asmoa museoaren sarea egitea da». Dagoeneko abian den sare horrek, kultur ekitaldiak ugaritzeaz gain, turista gehiago erakarri ditu.

Egitasmo andana

Museoen zurrunbiloak azken urteotan beste hainbat proiektu gauzatzera eraman ditu erronkariarrak. Lau kontu aipatzearen. Erronkariko euskararen azken hiztunei, espartingileei, almediatzainei, Julian Gaiarri, Estornes Lasa anaiei eta Fructuoso Orduna eskultoreari omenaldi beroak egin dizkiete.

Zazpi udaletako eta Batzordeko artxiboen katalogazioa egin dute; hainbat dokumenturen transkripzioak argitaratzen ari dira; eta, orain, Erronkaritiko kanpoko artxiboetan dauden ibarrari buruzko dokumentu guzikiak katalogatzen eta transkribatzen ari dira.

1998an, ibarreko jantziak lehengoratu zituzten, eta 2000. urtean, hogeita bat jantzi berri egin zituzten. Orain, Fernando Hualde janzkeraren gaineko hiztegi bat prestatzen ari da.

Eta, azkenik, aipatzeko da Burgin argazki zaharren fototeka bat sortzen ari direla, eta dagoeneko 1950. urteaz geroztiko 200 bat argazki bildu dituztela. Erronkari herrian ere udal argazki artxiboa sortzeko lanak abiatu dituzte. Baina, argazki zaharrez gainera, hemendik aurrera gertatzen den guziaren argazkiak ere bilduko dituzte.



● JESUS AZNAREZ ETA JOSE JAVIER SANZ

Galduriko ondarea lehengoratu

Museo, omenaldi, argitalpen, ikerketa eta erakusketen bidez, erronkariarrek gorazarre egiten diete galduriko bizimolde bati, bizitza horretako protagonistei, eta bizitza haren lekukotasuna jaso zuten.

Hualdek esplikatzen duenez, XX. mendean haustura izan zen Erronkariko bizimoduan. «Bostehun urtetan bizitza ez zen asko aldatu Erronkarin. Baina errepidea egin eta kanpoko jendea etortzeaz batera, XX. mendean gauza asko galdu ziren: janzkera, euskara, almedia, gazta egiteko antzinako modua, artzaintza tradizionala... Guri egokitu zaigu erabateko haustura horren lekuko izatea, eta horren guziki berreskuratzeko lan etnologikoa egitea; gure ondarea,

gure aberastasuna, nola edo hala zaintzeko».

Erronkarik ondare aberatsa du historian, dokumentazioan, kulturen eta artista arloan, Hualderen ustez. «Hori gordetzeko proiektuak anitz dira, eta anitz izan dira jendea, ilusionatzen den heinean. Adibidez, argazki zaharren erakusketa egiteak, edo agiri zaharrak transkribatu, argitaratu eta herritarren artean banatzeak ilusioa sortzen du, eta artxiboa katalogatzen dirua gastatzea merezi duela ikusten dute horrela».

«Kulturak batzen gaitu»

Hala ere, ondarea lehengoratzeko gain, Hualdek goraipatu du lortu dela herri ezberdinetako jendeak proiektu berean batera lan egitea. «Beste leku guzietan bezala, Erronkarin ere

betidanik izan da herrien arteko lehia», azaldu du. «Hainbat kontuk banandu egin gaituzte: Belaguako parkea, Pirinioetako Natur Parkea, hartza, politika... Baina, horren aitzinean, Erronkariren etnografiako, historiako eta kulturako ondarea berreskuratzeko eta basteak batzen gaitu».

Hualderen iritziz, orain garatzen ari den kultur jarduera guziki egiten da zazpi herrien elkargunean pentsatuz. «Ibarra mugitzen da, ez herri bakar bat», dio. «Horren erakusgarri izan zen 2000ko uztailean Iean Iruñean egin genuen ekitaldi bat, non zazpi herrietako udal ordezkariek Iruñean elkartu baitziren Gaiarre eta Orduna omentzeko. Horregatik bakarrik merezi du hau guziki egitea».

→ Asier Azpilikueta

Eta hartzaren museoa?

ERRONKARIN, BIZIMOLDE GALDU BATEN GAINEKO MUSEOAK SORTZEN ari dira. Bizimolde haren parte garrantzitsu izan zen hartza. Oraindik ere, hartz arre bat badago Erronkarin, Camille. Fernando Hualdek erran duenez, «hartzaren museo bat egiteko aukera ez dute baztertu».

«Beti izan dira haren hartzak», adierazi du Hualdek. «Ibarraren historiaren parte dira. Hartzaren ehiza ordenantzetan ageri da. Artzainen buruan beti izan da hartza, honek haien bizitza baldintzatu baitu; beste lekuetan egin duten artzaintza ezin izan dute hemen egin, hartza zegoelako».

Gauzak horrela, Hualdek dio ulertu behar dela Erronkariko kulturaren baitan hartzak izan duen garrantzia. «Baina, era berean, onartu behar da ika-mika handia dagoela hartzaren inguruan. Ganadu-

zale bezala dute hartza hemen nahi, ardiak hiltzen dizkielako. Eta baduzale batzuei berdin zaie hartza hemen egotea, hildakotatik ez ezik, ardiak hartzaren eremuan izateagatik ere diruz baliatze».

Berezin ukatzen ahal da hartza erakargarri turistikoa dela. Erronkaritiko zentroak, adibidez, hartza du ardatz. Eta Garderaren irudia turistikoki baliatu du, esku orri baten azalera kanargakia paratuz.

Hualderen hitzetan, ez da baztertzeko hartza bakarrik aztertzen interpretazio zentroa sortzea. «Museoen sarea sortzen ari gaituzten, aukeretako bat da hartzarena», adierazi du. «Ikusi behar egin. Baina hartzaren historia bilduko luke, hartza arkeologia, agiri historikoak, hezurak, larruak, tranpak...».

• MUSEOEN SAREA •

Turismoa erakartzeko, kultura arma indartsua dela ikusirik, Erronkarin museoak sortu nahi dituzte, halako kultur ibilbidea osatzeko. Herri bakoitzak gai jakin bat jorratzea da asmoa, eta bisitariei horren inguruko informazioa, ekitaldiak eta beste eskaintzea. Dagoeneko lau museo eginak dituzte.

Erronkari · JULIAN GAIARRE



● EGUNKARIA

Haren heriotzaren mendeurrena zela eta, 1990ean zabaldu zuten Julian Gaiarre tenorren omenezko etxe-museoa Erronkarin. Gaiarren bizitzaz gain, operaren gaineko artxibo zabala du museoak, eta uda guztietan kultur ekitaldien sorta oparoa eskaintzen du. Iaz, mausoleoaren urteurrena ospatu zuten. Orain, museoak indartu nahi dute, eta, horrekin batera, Fructuoso Orduna eskultorea gogora ekarriko duen beste areto bat zabaldu. Orduna da Erronkarin bertan dagoen Gaiarren eskultorearen egilea, baita Iruñeko Takonera parkean dagoenarena ere. Asmoa ez da Ordunari buruzko museo hutsa zabaltea, baizik eta proiektu dinamiko eta bizia osatzea.

Izaba · ERRONKARIARRAK



● MIKEL SAIZ

Izabako Museo Etnografikoa 1998ko udan zabaldu zuten, herriko biztanleen historia eta ohiturak jasotzeko. Besteak beste, Izabako garai bateko artzainen arropa nolakoa zen erakusten du, eta herriko sukalde tradizionala nolakoa zen. Lurra lantzeko aspaldiko nekazariak erabiltzen zituzten tresna bereziak ere bildu dituzte, baita emakumeek arropa garbitzeko baliatzen zituztenak ere, eta ardazlariak lihoa lantzeko erabiltzen zituzten tresna zaharrak, eta animalientzako gidak edo joareen uhalak, larruz eginak.

Orain izena aldatuko diote eta Erronkariaren museo izenarekin bataiatu. Laster behin betiko erakusketa paratuko dute, erronkariaren historia eta etnologiar buruz. Erakusketa horretatik kanpora atera dituzte Julian Gaiarren ingurukoak, baita artzaintza, gazta eta sorginkeriaren ingurukoak ere. Janzkerara eta sukaldaritzara gehiago mugatzea da asmoa.

Uztarroze · TRANSHUMANTZIA



● MIKEL SAIZ

Jesus Orduna Kabilak, transhumantziaren eta gaztaren inguruko museoak zabaldu zuten iazko udaberrian Uztarrozen, Kabilia Enea bere etxean. Uztarroze baita ardi gehien duen Erronkariko herria. Ibarreko artzainek ardi bideetan barrena mendeetan artaldeak gidatzen egin dituzten bidaiak gogora ekartzeko museoak da. Ardi larruak, zorroak, adarrez eginiko gatzontziak,

otsoak harrapatzeko arteak, artilea mozteko aitzurrak, agiri zaharrak, argazkiak, jantziak... Guztia Pirinioetatik Bardeara larrez larre joaten ziren artzainen bizitzaren erakusgarri. Gazta egiteko modu tradizionalak museoaren zati handi bat hartzen du.

Burgi · ALMADIA

Almadiaren Eguna ospatzen dute Burgin urtero, garai batean basoetako enborrak Irati ibaian behera nola jaisten zituzten gogorarazteko. Pirinioan almediatik ezaguna izatea lortu dute Burgin. Nafarroako Almediatzain Elkartek iazko abenduan inauguratu zuten almadiaren museo aretoa, Burgiko udaletxean. Almadiaren inguruko guziki bildu dute. Almadiak zer ziren esplikatzen dute, nola egiten zituzten eta almediatzainak nola bizi ziren. Erakusketan hainbat gauza daude ikusgai: arbolak moztu, landu eta garraiatzeko moduak erakusten dituzten irudiak, eskalan eginiko maketak, lanabesak, eguraldiaz babesteko behin-behineko txabola bat, almediatzaina eta astoa eta Erronkariko sukalde bat.



● JESUS DIGES

Bidankoze · SORGINKERIA

Bidankozen, herriko bestak ezagunak egin dituzte, bertan sorginek protagonismo handia dutelako. Baina haratago joan nahi dute, eta sorginkeriaren inguruko museo-aretoa sortu. Bidankoze baita, Burgi eta Izabarekin batera, sorginkeriaren inguruko epaiketa eta hilketan gehien jasan zuten Erronkariko herria. 2002ko otsailean museoak egiteko aurreproiektua aurkeztu zioten Udalari.

Urzainki · HIRU BEHIEN ZERGA

Urtero, uztailean 13an, Biarnokoek Izaba, Garro, Uztarroze eta Urzainkioei hiru behi ematen dizkiete, Erronkariko lurretan 28 eguneha ura eta larrea erabiltzearen truke. 1375etik urtero berretsi da akordioa, eta gaur egun besta handia da. Urzainkin horren inguruko museoak egin nahi dute, eta orain, aurreproiektua egiten ari dira, museoak paratzeko eskaera egiteko.



● NAFARROAKO GOBERNUA

Garde · USKARA

Erronkarin badute asmoa galduriko euskarari buruzko museo areto bat sortzeko. Dena dela, Fernando Hualdek erran duenez, asmoa gauzatzeko luze joko du, dokumentuak, liburuak, grabazioak eta beste biltzeak gain non kokatu erabaki behar baita. Uskararen museoak eginez gero, litekeena da Garderen paratzea, Garde eta Bidankoze —errepide eta ibaiaren bi aldeetan dauden herriak— izan baitziren euskara galtzen azkenak.



Gin lehorra

Harpidetza eta intimitatea.

Barka diezadala **EGUNKARIAK** argitalpen honen interesen aurka doan aitopena: aspaldian erabaki nuen sekula ez nintzela inongo egunkaritako harpidedun izanen, hain justu duela hogeituru, emaztea eta biok bizi garen etxean bizitzen hasi ginenean. Izan ere, harpidetza intimitatearen aurkako eraso da.

Alargun idorra. Gure etxeko lehen pisuan alargun bat bizi da, iharra fisionomian zein tratuan, argalegia izanagatik ere dotorea, mingaina dantzan jartzen duen aldi oro ironia zorrotza darabilena. Auzoko mihi gaiztoek diote idortasuna hain justu inportaziozko gin —*ginebra*-ri hala esan behar diogu euskaldun jatorrok— idorra hektolitroka edateari zor diola. Inglaterra Ama Erreginaren markak hausteko gai da, nonbait. Iruñeko betiko familia horietako bateko kidea da —**Urmeneta, Ruiz de Alda** eta enparauen parekoa—.

Egarri aseezina. Garai batean alargunarena zen eraikin osoa. Gero, pisu zenbait saldu zituen —horietako bat guri—, eta, Zabalguneke mihi luzeen arabera pisuonagatik jasotako dirutza edan zuelarik, ahitu zuelarik, geratzen zitzaizkion pisuak alokatzen hasi zen. Higiezin-lanak higiezin-lan —irakurleen artean euskaltzain osorik bada, **Patxi Zabaletarik** edo **Andres Iñigorik** edo, faborez, topa eta proposa dezala Aitorren hizkuntza zaharren arautzaileen hurrengo akelarrean



Erresuma Batuko ama erregina.

higiezin baino hitz ulergarriagorik gaztelaniazko *inmobiliario* /a esateko—, alargunak ez du sekula santan lanik egin.

Ongi-etorri salatzailea. Ez dago jakiterik alargunak zertan ematen duen eguna, bere bizitza pribatua, jakina, pribatua baita, baina badago jakiterik goiza berandu arte lotan ematen duela, hain justu Nafarroako egunkaririk saldueneko harpidedun delako.



Nafar Izkuntza, Diario de Navarra-ko euskarazko orrialdea.

Egunero, goizean goiz, banatzaileak ale Cordovillan inprimatu berria uzten du alargunaren ongi-etorrian —txiste zahar bezain txarra egin izanagatik ere, argi gera dadila jakin badakidala felpudoari euskaraz *lanpas* edo eta *zerria* esaten zaiola—. Eta hortxe dago arazoa: lehen pisutik igarotzen zarelarik periodikoa ikustearen ala ez ikustearen arabera jakin dezakezu alargunak ohatzean segitzen duenez.

Manifestaldia. Joan den egunean, eguerdiko ordu bata eta erdiak aldera lanetik etxera bueltan nen-

torrela, hain zuzen ere alarguna topatu nuen, soinean maiz daraman marrazki gorridun zetazko kimono beltza zeramala —horrelakoa da gure alarguna—, egunkaria jasotzen. Nik «egun on» esan nion, eta berak «manifestaldia egin beharko dugu» harriarri batez erantzun zidan. Jakina, harritu nintzen. «Zu euskaltzalea zinen, ez?», gehitu zuen. Nik baietz erantzun. Berak, irribarre mehar batez, «orduan ados egongo zara nirekin: manifestaldia egin behar dugu Diarioari Hizkuntza Politikaren euskarra sustatzeko laguntza ken ez diezaioten». To. Gero esanen dute alkohola edateak neuronak moteltzen dituela.



panpilonia zirkus

Neskitxen eskola

Enrike Diez de Ultzurrun

Ez dira gutxi gero Victor Eusak Bigarren Zabalgunean diseinatutako eraikinak. Horietako batean, neskatxak hezi eta prestatzen zituzten etxeko lanetan aritzeko. Eskola horri *Servicio Doméstico* deitzen zitzaion. Gaur egun, ez dituzte neskek zeregin horretarako bideratzen, baina jende aunitzek izen berbera erabiltzen segitzen du. Eraikin handia da, zezen-plazaren ondoan dagoena, Orreaga etorbidearen eta Amaia karrikaren arteko kantoian, zehazki.

Bada, gerra ondoren hasi eta 30en bat urtez, ezin konta ahala neska aritu zen etxeko lanen eskola horretan. «Badakizu? Gu ezin ginen zuzenean hiriko etxeetan sartu. Erraten zuten gu fineziarik gabeko neska basak ginela, hezi gabeak, herrikoak, eta, horregatik, bi urtez edo han pasa

behar izaten genuen manerak ikasteko: nola hitz egin, nola egon etxeoandareen aitzinean, mahaia nola paratu, zopa nola zerbitzatu, nola lisatu, nola garbitu, kofia nola eraman... Azkenean, gure manera zakarrak ezitzen zizkiguten, beharko eztitu gainera. Bertzenaz, zer? Herrira kolkoa hutsik itzuli? Ezta pentsatu ere, mutikoa, ezta pentsatu ere». Estellerriko Asuntzión bezala, behar handiko urte haietan «herriko» neskatxak saldoka iristen ziren *Servicio Doméstico*ko mojen eskuetara, ondoren neskitx edo neskame aritzeko.

Urteak joan, urteak etorri, Maria Inmakuladako mojak bertze zerbait irakasten hasi ziren, bertze zerbitzu batzuk eskaintzeaz gainera. Lehen solairua emakume dirudunendako zahar-etxea zen; bigarre-



Servicio Doméstico eraikina, Orreaga eta Amaia artean.

na mojen bizilekua; hirugarrenean Lanbide Heziketako bi adar ematen ziren: sanitarioa eta administratiboa; laugarrenean OHoko ikasgelak eta barneko ikasleen logelak zeuden, eta, bortzgarrenean ikasgelak. Terraza jostaldirako erabiltzen zen.

Duela 20-25 urte ere Mendialdeko neskatxek josia zegoen hura eta debekuz ere

bai, bereziki, barneko ikasleentzat, eta oso larria zen arau zorrotz haiek haustea, Joana Mari burgiarrak dioenez: «Gu han ia giltzapetuak bizi ginen, pentsa zenbat neska, eta, bitartean, kanpoan, Eskolapio eta Salesianoen ikastetxeetako mutilak, zelatan, usnaka, baina barnera sartzen ziren gizon bakarrak apez eskolapioak ziren, meza emateko eta gogo jardunak egiteko. Gero, bekatuak ez egiteko, ezin ginen bi neska elkarrekin bainu-gela berean sartu, baina, moja batek edo bestek zirrri ederki egiten zigun, fereka eta musu, goizean goizik, gu esnatzerakoan».

Joana Mari, behin batean, afaltzera atera, mojek adierazitako orduan itzuli ez, eta, biharamunean, maletak atari ondoan utzi zizkieten. Ez zen bakarra izan.

Alex Perez

PAILAZOA

«Anitz dugu ikasteko umeengandik. Haiek hemen eta orain bizi dira, instant bakoitza berria eta diferentea dela irakasten digute»

«Pailazoa izatea barneko umea bizitzeko aukera da»

ERREZUKO BERE ETXEAN DUGU hitzordua Alexekin, Estellerian. Edo Moko pailazoarekin. Deierri ibarra berdetzen eta loratzen ari bada ere, fresko egiten du. Etxearen barrenean egin digu harrera Alexek. Edo Mokok.

■ **Negu hotzaren ondoren, udaberriko giro onarekin kale emanaldiak ugaritzen dira. Laster abiatuko duzue zuen lana, ezta?**

Bai, uda da garai lanpetuena guretzat. Neguan, berriz, ikuskizun berria prestatzen aritzen gara: pertsonaiak, materialak... Urte osoan dugu egin beharra; hori bai, ez dugu ordutegirik, eta horrek askatasun handia ematen dizu. Azkeneko ikuskizuna estreinatzeaz daukagu. Hilaren bukaeran abiatuko dugu ikuskizuna, eta Euskal Herri osoan ibiliko gara, plazaz plaza.

■ **Batik bat umei zuzentzen dizkiezue zuen antzerki emanaldiak.**

Oso argi dugu gure ikuskizunak umeentzako edo dibertitu nahi duten pertsona ororentzako egiten ditugula. Umeak ikuskizunaren baitan egotea bilatzen dugu, emanaldiaren parte izatea, alegia. Horretarako, jokoak, dantzak eta abar egiten ditugu elkarren arteko harremana sor dadin. Antzerki klasikoaren irizpideak albo batean utzita, gure xedea aktorea eta ikuslea maila berean

Udaberria ailegatzeaz dagoenean, kaleko antzerki emanaldiak ugaritzen dira. Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak bere azken ikuskizuna prestatzen ari dira egunotan, eta datozen hilabeteotan Euskal Herriko bazter guztietan estreinatuko dute, ume handi eta txiki guztien gozamenerako.

jartzea da. Horrela lan egitea aberasgarriagoa da; ez dago berezitasunik, eta ikuskizuna zuzenagoa da.

■ **Harreman zuzena duzue xede, orduan?**

Horixe. Oso gauza kuriozua gertatzen da. Batzuetan agertokia goian dago, eta ikusleak behean. Horrelakoetan zailagoa izaten da harreman zuzen hori aurkitzea, eta horrelakoetan, gurasoek ikuskizuna gustukoa izan duten edo ez erraten digute. Zuzeneko emanaldietan, berriz, anitz disfrutatu dutela erraten digute. Guretzako bereizketa hori oso garrantzitsua da; hots, ikuskizuna agertokian egiten denean, buruarekin ikusten dute; berriz, harreman zuzenean denean, umeek zurekin bat egiten dutenean, sentsazioetatik bizi dute ikuskizuna. Eta hori ikustea oso polita da. Umeak sentsazioen munduan bizi dira, eta ez intelektuaren munduan, eta guk alor hori

landu nahi dugu, sormenaren mundua, hain zuzen ere.

■ **Pailazoek umeengan sormena, irudimena, magia eta barrea sortarazteko dohaina daukazue. Umeek pailazoei, berriz, zer ematen diete?**

Pailazoak gauzak aldatzeko dohaina du. Hau kuxin bat da, baina alfonbra magikoa izaten ahal da, edo txapela, edo platera. Instant bakoitzean sormena lantzen ari zara, jolasten ari zara, eta kontzeptuetatik haratago dagoena igorri nahi diegu umei, kontura daitezen, eskolan ikasten dutenaz gain, bertzelako mundu bat ere badagoela. Eta haiengandik asko dugu ikasteko. Umeak hemen eta orain bizi dira, instant bakoitza berria eta diferentea delako lezioa irakasten digute. Ildo horretan, emanaldi bakoitza berezia izaten da, eta haien erreakzioak kontuan hartuta, bat-bateotasunari lekua utzi behar izaten diogu. Egun bakoitza disfrutatzeko aukera ematen dizute umeek, sentsazioak bizitzeko aukera, irekita baldin bazaudete behintzat. Umeen munduari esker, bizirik zaudela sentitzen duzu.

soslaia

Alex Perez 1945. urtean jaio zen, Donostiako Alde Zaharrean, baina 80ko urteetatik Deierri ibarra du bizitoki. Garai batean, Azkona herrian bizi izan zen, eta herri eder horren izena hartu zuen antzerki talde famatua izendatzeko.

Sei urterekin hasi zen Alex artearen munduan sartzen, musikaren eskutik. Gerora, dantza eta antzerkia etorri ziren, eta ibilbide luze eta emankorra izan du antzerki esperimentalaren alorrean. Gorputz espresioa ere landu du.

1977. urtean, Pasaiako Trintxerpe auzoko jendearekin elkarlanean, Azkona taldea sortu zuen. Zortzi urte geroago, Bateginik euskal zirkuko pailazoak izan ziren Alex, bere emaztea eta bere bi semeak. Kiki, Koko, Moko eta Flax orduantxe sortu ziren. Alex Moko da.

■ **Nolakoa da Moko?**

Moko pailazo inuzentea da, eta horregatik, ume kozkorrekin bat egiten du batik bat. Bi edo hiru urteko umeek gizon heldu bat ikusten dute, baina inuzentea, haiek bezalakoa dena. Ume txikiak beldurrez sartzen dira ikuskizunera; bukaeran, berriz, besarkatu egin nahi zaituzte. Orduan, erraten diozu zeure buruari: «Bai, hemen egon nahi dut, antzerkia egin nahi dut».

■ **Dena den, pailazoa ez dago beti pozik. Zaila izaten al da itxura egitea?**

Antzerki emanaldi bat duguenean, aurretik txipa aldatu beharra dugu. Umeek nabari egiten dute, eta, nolabait, antzezpenean erabat barneratzea behar izaten dute, bertzela, altxatu eta alde egiten dute. Berehala gaizki ari zarelako mezua igortzen dizute. Aldiz, barneratzen zaren mementoan, haien begiradek zurekin bat egiten dute, konplizitate sortzen da, eta harropatu egiten dituzu, etengabeko komunikazioa sortuz.

■ **Zer da Alexentzat Moko izatea, pailazo izatea?**

Niretzako, pailazo izatea barnean dudana umea bizitzeko aukera da, helduak garenean errepinitu egiten dugu barnean dararamagun ume hori-eta.

→ Kristina Berasain



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Izua hemen

Horrela du izena Joxemari Iturraldere liburubatek, orain dela bi urte argitara eman zuena. Egia aitortu behar bada liburua ez dut irakurri, baina izenburua gogoan neukan eta oso aproposa iruditu zait artikulu honetarako.

Izan ere, herri honetan izututa bizi da jende asko, uste ditugunak baino askoz ere gehiago. Komunikabide askotan agertzen diren beldurraren seme-alaba horiek baino askoz ere gehiago dira.

Izurako arrazoiak desberdinak dira, baina behar bezala lorik egiten ez duen jende asko dago, gauak behar baino luzeagoak egiten zaizkienak, karrikara ateratzean bi aldeetara begiratzen dutenak, bisaia tristatuta dutenak, irribarrea katakonbetatik atera behar izaten dutenak.

Eta sentimendu hori eguneroko bilakatzenean, tristura nagusitzen da, eta etsipenaren gupilaren baitan sartzen gara, edonora begiratuta ere lainoak baino ez dira ikusten. Aspaldiko udaberri hura ekartzen dugu gogora, laburra baina aldi berean intentsoa izan zena. Denborarekin dena mitifikatzeko joera dugu eta ziur aski orduan ez ginen orain uste dugun bezain zoriontsuak izan, baina askok izua desagertzen ikusi zuten, eta hori gainera zama handia kentzea da.

Gizabanakoek osatzen eta hezurtzen dituzte herriak, eta herri triste eta izutua egiten ari gara. Eta larriagoa dena, etsia. Nora doan jakin nahi duena, baina bide zuzena aurkitu gabe, aldapaz aldapa ibiltzen dena. Elkarri mesfidantzaz begiratzen dioten herritarrekin, batzuk izututa, beste asko izuarekin eza-zolati.

Izpi bat ikusi nahiko genuke hodei beltzen artean, baina arrazionala izanik ez du ematen atertuko duenik. Badira klimatologia ez-korriari aurre egiteko beste bide batzuk, esate baterako bentiladore erraldoi batzuek hodeiak uxatzen ahal dituzte. Nork jarriko ditu martxan? Noiz? Erantzunik ez, baina momentuz Iturraldere liburua apalategian utziko dut, izu gehiegi ikusten baitut gure herri petral honetan.

gure aukerak

MUSIKA

- ▶ **Iruñea:** Tagore taldea, gaur, 22:30ean, O'Connor's tabernan.
- ▶ **Iruñea:** Whiskey Tren taldea, gaur, 23:00etan, Cotton Club tabernan.
- ▶ **Zangoza:** Tunocco Brass musika klasiko taldea, bihar, 20:30etan, Karmengo auditorioan.
- ▶ **Aitzoain:** Amparanoia kantaria, bihar, 23:00etan, Artsaian.
- ▶ **Iruñea:** Arcanda taldea, ostegunetan, 21:30ean, Terminal tabernan.
- ▶ **Tutera:** Haur kantari txapelketa hirugarren kanporaketa bihar jokatuko dute, 17:00etan, Queiles pasealekuko karpan.

BERTSOLARIAK

- ▶ **Leitza:** Gaur, 21:30ean, bertso trama izanen da, Nerea Elustondo eta Amaia Agirrekin, Torrea ostatuan.
- ▶ **Etxarri-Aranatz:** Bihar, 21:30ean, Leku Ona tabernan: Estitxu Arozena, Oskar Estanga, Xabier Terreros eta Joseba Andoni Beltza.
- ▶ **Bera:** Bihar, 21:30ean, Gure Txokoa elkarteak: Jose Juan Zubieta Etxabe, Xabier Legarreta, Ekintza Landa eta Nerea Bruño.
- ▶ **Arano:** Bihar, 21:30ean, Herriko elkarteak: Xabier Silveira, Juan Mari Lopez, Iñigo Ibarra eta Pello Goikoetxea.

HITZALDIAK

- ▶ **Barañain:** Harizti taldearen XV. urteurrenaren baitan, Juan Antonio Urbeltz Euskal Herriko dantzez solastatuko da, bihar, 16:00etan, udaletxeko erabilera anitzeko aretoan.
- ▶ **Iruñea:** Astelehenean, Michael Morris irakasle estatubatuarra eta doktorego ondokoa New Yorken ikasten ari den Itziar Alkorta *Irailaren 11, estatubatuarren ikuspuntutik* ize-

neko mintzaldia eskainiko dute, Erraldoien Txokoa, 20:00etan.

ANTZERKIA

- ▶ **Burlata:** Kollins Klown taldeak

eta *Txanogorritxo* antzezlanak eskainiko ditu, bihar, 18:00etan, Kaputxinoen ikastetxean.

- ▶ **Antsoain:** Asteazkenean, Compañía de los Sueños taldeak *Rosa, kontaidazu ipuin bat* hau-

rentzako antzezlan taularatuko du, Ezkaba ikastetxean, 17:30ean.

ZINEMA

- ▶ **Iruñea:** Gaur, Karrikiren zinemaldiaren baitan, @IEI Bola@-filma pantailaratuko dute, euskaraz, Golém-Baiona zinematokietan, 20:30ean.

IKASTAROK

- ▶ **Barañain:** Bere XV. urteurrena dela eta, Harizti dantza taldeak bi ikastaro trinko egingen ditu, Kultur Etxean. Lehena hilaren 11, 13 eta 15ean izanen da; eta bigarrena, 18, 20 eta 22an. Gaur da izena emateko azken eguna.

LEHIAKETAK

- ▶ **Zangoza:** Hilarekin bukatuko da Zangozako III. Pop-Rock Lehiaketarako maketak aurkezteko epea. Informazioa eta oinarriak, Kultur Etxean (948-870251).

ERAKUSKETAK

- ▶ **Atarrabia:** Olga Izkoren *Tunez* argazki erakusketa Kultur Etxean ikusten ahal da, hilaren 15a arte, astelehenean ostiralera 17:00etatik 21:00etara.
- ▶ **Barañain:** *Nafarroa etnografikoa* erakusketa Kultur Etxean izanen da, hilaren 25a arte, astelehenean ostiralera, 18:30etik 20:30era.
- ▶ **Iruñea:** Iruñerriko zazpi ikastetxetako haurrek eginiko marrazkiak Hezkuntza Departamentuko klustroaren gainekoan ikus daitezke, lanegunetako goizetan, apirilaren 8a arte.

BESTELAKOAK

- ▶ **Xabier:** Asteburuan, aurtengo lehen Xabieraldia izanen da.

Astekoko erakusketa



• TONY GRADY

'Guernicaflexia. Picasso gogoan eta eskuetan'

Zer: Instalazioa.

Non: Zizur Nagusiko Kultur Etxean.

Noiz arte: martxoaren 10a arte.

Ordutegia: gaur eta bihar, 19:00etatik 21:00etara, eta igandean, 12:00etatik 14:00etara.